

Mugaz bi aldeetako nafarren batasuna aldarrikatuko dute Nafarroaren Egunean

Baigorriko Basaizeak antolaturiko Kultur Astearen egun gorena izanen da

Miren Iriarte / Iruñea

Baigorriko Basaizea elkarteak antolaturik, Nafarroaren Egunean 22. aldiz ospatuko dute hilaren 30ean. Urtero bezala, mugaz bi aldeetako

nafarren batasuna aldarrikatzeko asmoz prestatu dute jaialdia, eta aurten XX. mendeak Baigorriko kantonamendura ekarriko aldaketa handiak gogoratu nahi izan dituzte antolatzaileek. Egun osoan musika-

riak, bertsolariak eta dantzariak izanen ariko dira. Euskararen indartzea eta laborantzaren sostengatzea eskatu dute batez ere Baigorriko Kultur Astearen antolatzen aritu direnek.

BASAIKAZA Kultur Elkartek antolaturik, Nafarroaren Eguna egingen dute Baigorri, 22. aldiz. Apirilaren 30ean izanen da aurten, eta berriro ere Nafarroa Behereko eta Garaiko herritarren elkarretaratzea lortu nahi du jaialdiak.

Antxon Arinordoki Basaizea elkarteak kideak esan zuenez, Nafarroaren Eguna elkartearen kanpora irekitzeko parada da. «Euskal Herri guztiko jendeari zabaltzea da, baina leku berezia emanez Nafarroa Garaikoei, zeren eta egun horren bitartez aldarrikatzen baitugu Nafarroaren batasun historiko eta kulturala, eta baita ere Nafarroaren hizkuntza, euskararen zilegitasuna».

Egunaren antolatzaileek, 2000. urtearen sinbolismoaz baliaturik, 1000. urteko Nafarroaren egoera ekarri zuten gogora: «Duela mila urte Nafarroa zabaltze prozesuan zen, gure hizkuntzak ere eremu zabalagoa zuen; eta orain, mila urte beranduago, Nafarroako Gobernuak bere harreman guztiak moztu nahi ditu EAEko Gobernuarekin; bertalde, euskararen kontrako erasoa abiarazidu, Euskararen Legea aldatu nahian; Nafarroaren Eguna bi eremu horien isla izatea nahi dugu».



JOXE LACALLE

Basaizea taldeko kideek arratsaldean Iruñean egin zuten prentsaurrekoa. Goizean Baionan egin zuten.

roaren Eguna bi eremu horien isla izatea nahi dugu».

Eta hori guztia aldarrikatzeko, festa eta kultur astea egingen dute Baigorri. Nafarroako seigarren merindadea aldarrikatuz, merindade guz-

tietako gaiteroekin Baigorriko gaiteroak ere ibiliko dira bertako karriketan, eta bertsolariak, dantzariak eta txistulariak ere izanen dira goizez.

Arratsaldeko 14:00etan bazkaria izanen da, eta Xal-

bador eta Ihidioy, Erramun Martikorena, Amaia Rioupeyrous eta Ortzaiztarrek izanen dira animatzaile.

Arratsaldean pilota partida izanen da, eta dantzaldiak gau arte.

«2000. urtea ate bat izanen da»

Iñaki Etxeleku / Baiona

Toberekin hasiko da aurtengo Baigorriko Kulturaldia. Egitarauaren berri eman zuen atzo Baigorriko Basaizea elkarteak. Ahuntzek ere Euskal Herrian bizi nahi dute toberak emanen ditu laborari gazte talde batek. GFaren kanpainaren kariaz muntatu zituzten, eta egungo Ipar Euskal Herriko egoeraren ikuspegi zirikatzaile baten eskaintzeko tresna dituzte. Apirilaren 21ean, ostiralean,

emanen dute, Irulegi-ko Denen Etxean, arratseko 21:00etan. Hilaren 29an, larunbat arratseko 21:00etan, kontzertu bat ere egingen da Baigorriko elizan, Julian Romanoren omenez. Lizarra, Iruñea eta Bilboko gaiteroek AIDA, Bilboko orkestra eta Radio France irratiako Filarmonikoko musikariekin batean parte hartuko dute bertan.

Biharamunean, Nafarroaren Egun famatuaren aldi izanen da. Aurten berri-

kuntza bat izanen da, karro ibilaldi bat egingen baita, aldaketa anitz izan diren azken mende honen ospatzeko. Euskararendako eta euskal kultur sail guztiendako ofizialtasuna eta gizarte aberats baten erdies-teko, «biak imido» egingen duela adierazi zuen Basaizeak. 2000. urtea «ate bat» bezala ikusten du; euskararen ezagupe-naren edo desagere-naren urtea izanen dela dio. Bixentaenea Basaizea elkartearen

ostatua aurten hetsia izanen dela ere zehaztu zuten egunaren antolatzaileek.

Haurren Eguna maiatzaren 3an iraganen da, Bidarrain. Maiatzaren 5ean, rock kontzertu bat izanen da Bixentaenean, Mokuzatzu eta Kolpe-k taldeekin.

Maiatzaren 6an, Antton Lukuren Doktor Novartis antzerkia emanen dute Garaziko lizeotarrek Baigorriko Bil Etxean. OGMen gaia aztertzen du antzezlanak.

Biharamunean, 12 orduz euskaraz egingen da Elizondon, eta, urtero bezala, Baigorri eta Baztanek «bat egingen dute».

Maiatzaren 12an, azkenik, laborantzaz eztabaida bat egingen da Aldudeko Aldudarrak elkartearen egoitzan. Mendiko ekoizpe-nen balioa: noiz arte laborarien esku? izanen da eztabaidarako gaia. Laborantza munduko sindikalistek, laborariek eta saltzaileek parte hartuko dute eztabaidan.

Academia Galega, Institut D'Estudis Catalans eta Euskaltzaindia Bilbon bilduko dira

■ Espainiako Hizkuntz Akademiak onartutako toponimia aztertuko dute

Erçredakzioa / Bilbo

INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS, Academia Galega eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordeen ordezkariak Bilbon bilduko dira hilaren 28an. Ortografia de la Lengua Española delakoaren hirugarren eranskina aztertuko dute hiru akademiak ordezkariak.

Eranskin horretan agertzen diren toponimo eta herri izenen egokitasuna zehazteko asmoa dute. Azterketa eta, beharrezkoa balitz, kritika ere egingo dute linguistika arloari helduta.

Ortografia de la Lengua Española-ren hirugarren eranskin horretan toponimoak agertzen dira, betiere gaztelaniazko bertsioa azpimarratuz. Hala, Espainia barruko erkidego historikoetan diren hainbat herritako izenak —Katalunia, Galizia eta Euskal Herrikoak— jatorrizko hizkuntzetatik gaztelaniara itzuli dituzte inolako irizpide zehatzik gabe.

Hainbat akats

Itzulpen horren ondorioz, kasu batzuetan inoiz erabili ez diren toponimoak agertzen dira, edota, grafari dagokionez, benetako akatsak egin dituzte. Esate baterako, Azkoitia herriaren izen ofizial bakarra Azkoitia bada ere, Azkoitia izena agertzen da, edo Baracaldo Barakaldo-ren ordez.

Era berean, bada Katalunian Sant Boi de Llobregat izeneko herri bat, eta Ortografia de la Lengua Española-ren hirugarren eranskinean San Baudilio de Llobregat izena agertzen da. «Gaztelaniaz mintzatzen den hango jendeak ere ez du izen hori erabiltzen», salatu dute hiru akademiak kideek.

Kontu horiek guztiak aztertu ostean, baliteke hiru hizkuntz akademiek adierazpen bateratua kaleratzea hilaren 28an bertan.